



FORU DEKRETUA

Kultura eta Kirol Saila
Idazkaritza Tekniko Zerbitzua
Esp. zk.: 20-ST 14-3

Gazteriaren Foru Erakundeak sustatutako dituen udako jarduera dela-eta aplikatu daitezkeen kuota eta araudia onartzea

Tasa eta prezio publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialaren 78 zenbakia, 2018/07/06koa) 25.1 artikuluan ezarri zuenez, Diputatuen Kontseiluaren eskumena da erabiltzaileei ematen zaizkien zerbitzuengatik eskatu behar zaien prezioa finkatzea eta aldatzea.

9/2018 Foru Arauko 24. artikulua xedatzen du arrazoi sozialak, ongintzakoak edo interes publikokoak daudenean, aurreko atalean ezarritako parametroak baino prezio publiko txikiagoak ezarri ahalko direla (gutxienez kostuak ordaintzeko modukoak), aurrez aurrekontu aurreikuspenak eginda, diruz lagundutako prezioaren zatia ordaindu ahal izateko.

Gazteriaren Foru Erakundeak udan zehar hainbat programa antolatzen ditu, funtzio ludikoa izateaz gain pedagogia- eta heziketa-funtzioak gauzatzeko asmoa dutenak.

Gainera, programa hauek estereotipoei eta generoko rolei aurre egiten dizkieten eta neska eta mutilen arteko elkarbizitzarako espazioak sortzen dituzten jarduerak sustatzea dute helburu, non euren gaitasunak garatuko dituzten eta praktika sexistei aurre egingo dizkieten, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 legeak, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzari buruzko 28., 29. eta 30. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Horretarako, berdintasunerako hainbat helburu garatuko dira espezifikoki eta programazioa eta jarduerak Gazteriaren Foru Erakundeak aisialdiko jardueretan genero perspektiba integratzeko eskaintzen dituen material didaktikoei egokituko dira, zehazki GFEk argitaratutako aisialdiko jardueretan indarkeria sexistaren prebentziorako Begiraleentzako Gida Praktikoari.

Halaber, indarrean dauden berdintasunerako legeak arautzen duten bezala, enpresa esleipenduna kontratuarekin erlazionaturiko dokumentazio guztian sexista ez den lengoia erabiltzera derrigortzen da, baita sortutako eta erabilitako informazio guztia sexuen arabera bereiztera ere.

Hezkuntza helburuaz gainera, udalekuen betekizuna da, baita ere, familiei baliabideak eskaintzea beren lanbide ardurak eta ardura pertsonalak bateratzeko, eskolako oporraldietan adingabeak zaintzea erraztuz. Eginbehar hori jasota dago 3/2007 Lege Organikoan (Gizonen eta Emakumeen Berdintasun Eraginkorrerako Legea, 14. artikulua) eta 4/2005 Legean (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea, 47. artikulua). Bi lege horietan, arautzen da administrazio publikoek neurriak ezarri behar dituztela emakumeen eta gizonen bizitza pertsonala eta familia bizitza lanarekin bateratzea



segurtatzeko, baita etxeko lanetan eta familiarenganako arretan ardurak partekatzearen sustapena ere segurtatzeko.

Horrela, interes publikoko helburu argiarekin, gazteriaren prestakuntzan, baloreen transmisioan eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako sustapenean zuzeneko ondorioa duen goi-mailako kalitateko prestakuntza eskaintzen delako, eta inoiz ez egindako gastua berreskuratzeko edo orekatzeko helburuarekin, Kultura eta Kirol Sailak Gazteriaren Foru Erakundeak bultzatzen dituen udako programetan izena emateko prezio publikoen onarpena proposatzen du.

Horregatik, tasa eta prezio publikoei buruzko aipatutako Foru Arauaren 23., 24., 25. eta 26. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, Gazteriaren Foru Erakundeak bultzatu dituen udako ekintzengatik ordaindu beharreko prezio publikoa onestea proposatzen da.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horiek horrela, Ekonomia Jardueren eta Deszentralizatutako Zerbitzu Juridikoen Jarduerari buruzko urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak 7. artikuluan xedatutakoaren harira Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartu, eta Kontuhartzailtza Zerbitzuaren ezinbesteko eta alde zuzeneko txostenak eskatu da.

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak eta Kultura eta Kirolen Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hau:

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Gazteriaren Foru Erakundeak bultzatu dituen udako ekintzetan parte hartzen dutenek ordaindu beharreko eranskin ageri kuoten prezio publikoen araudia onartzea.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAO argitaratzea. Argitaratzen den egunetik bertatik izango du indarra

Vitoria-Gasteiz,

Ramiro González Vicente

Diputatu nagusia
Diputado General

Ana del Val Sancho

Kultura eta Kirol Saileko diputatua
Diputada de Cultura y Deporte



Itziar Gonzalo de Zuazo

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko
diputatua

Diputada de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

Eduardo López de Aguilera Díaz

Finantza eta Aurrekontu zuzendaria
Director de Finanzas y Presupuestos



I. ERANSKINA

Araudia, GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEAK antolatutako udako jardueretan izena emateko kuoten prezio publikoarena

1. artikulua.- Zerga gaia

Zerga gaia da Gazteriaren Foru Erakundeak antolatutako udako jardueretan parte hartzea.

2. artikulua.- Ordaintzera behartuak

Jardueretan izena eman duten pertsona fisikoak edo haien guraso, tutore edo legezko ordezkariak daude ordaintzera behartuta.

3. artikulua.- Izena emate kuotak

Foru Dekretu honen II. Eranskinean adierazten diren egitaratuaren eta horren iraupenaren arabera da izen emate kuotak.

4. artikulua.- Hobariak

a) Ehuneko 60ko hobaria, gizarte laguntza gisa, programa bakoitzaren kasuan kasuko kuotan. Laguntza hauek izango dituzte Gizarte Zerbitzuen gizarte larrialdietarako laguntzak (GLL) diru sarrerak bermatzeko errenta (SBE) edo bestelako laguntzaren bat jasotzen dituzten familiek, beti ere, dagozkion frogagiriak aurkeztuta.

b) Programa bakoitzari dagokion kuotaren % 30eko hobaria, familia ugaria izateagatik. Eskaerari familia ugariaren indarreko titulua erantsi behar zaio, non laguntzaren eskatzailea agertuko den.

c) Hobariak ezin izango dira pilatu.

d) Hobari horiek lekua esleitzeko unean eta kuota ordaindu baino lehen eskatuko dira.

5. artikulua.- Sortzapena

Zernahi jardueratako plazaren esleipena jakinaraztean sortuko da kuota ordaintzeko beharra.

6. artikulua.- Ordaintzeko era

Kuota internet bidez ordaindu ahal izango da, ordainketa-pasabidearen bidez edo inprimatutako ordainketa-gutunaren bidez erreferentziako banku erakundeetan.

7. artikulua.- Kudeaketa eta administrazioa



Prezio publiko hauen kudeaketa eta administrazioa Gazteriaren Foru Erakundearen, hots, Arabako Foru Aldundiko erakunde autonomoaren eta Kultura eta Kirol Sailari atxikitakoaren, eginkizun dira.

II. ERANSKINA

2020. urtean Arabako Gazteriaren Foru Erakundeak antolatutako udako jardueretan parte hartzeagatik eska daitezkeen kuotak

Txandak / Turnos Egunak / días	Kuota / Cuota	Kuota murriztua 1 (-%30 familia ugariak) Cuota reducida 1 (familias numerosas -30%)	Kuota murriztua 2 (-%60 gizarte laguntzak) Cuota reducida 2 (Ayudas sociales -60%)
7	130,00	91,00	52,00
10	185,00	129,50	74,00

GAZTE BIDAIAK

Txandak / Turnos Egunak / días	Kuota / Cuota	Kuota murriztua 1 (-%30 familia ugariak) Cuota reducida 1 (familias numerosas -30%)	Kuota murriztua 2 (-%60 gizarte laguntzak) Cuota reducida 2 (Ayudas sociales -60%)
7	207,00	145,00	82,80
10	295,00	206,50	118,00
11	325,00	224,50	130,00
12	354,00	247,80	141,60